



## II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

### Basauriko Udala

#### Deialdia eta oinarriak, eraikin publikoen mantentze-lanetako arduradunen lan-poltsa eratzeko.

Alkate jaunak, 2339/2024 Dekretua eman du, ekainaren 7koa. Bertan, honako hau xedatu du:

*Lehenengoa:* Eraikin Publikoen Mantentze-Lanetako arduradunen lan-poltsa eratzeko deialdia onestea (Administrazio Bereziko eskala, Zerbitzu Berezien azpieskala, Ofizioetako Langile mota, AP taldea titulazioa).

*Bigarrena:* Deialdia arautuko duten oinarriak onestea (Dekretu honetan eranskin gisa gehituko dira).

*Hirugarrena:* Oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki taulan eta Udaleko web gunean argitaratzea.

*Laugarrena:* Dekretu honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, berau argitaratzen den dataren biharamunetik bi hilabeteko epean. Bestela, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoan. Hala xedatzen du Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikulua, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluekin bat.

Basaurin, 2024ko ekainaren 20an.—Alkatea, Asier Irigorri Basaguren



## OINARRIAK, ERAIKIN PUBLIKOEN MANTENTZE-LANETAKO ARDURADUNEN LAN-POLTSA ERATZEKO, ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA, ZERBITZU BEREZIEN AZPIESKALA, OFIZIOETAKO LANGILE MOTA, AP TALDEA

### Lehenengoa. — *Deialdiaren xedea*

Administrazio Bereziko eskalako, Zerbitzu Berezien azpieskalako, Ofizioetako langile mota, AP taldea, 2. hizkuntza-eskakizuna dagokion, txanda irekian oposizio bidez Eraikin Publikoen Mantentze-Lanetako Arduradunen lan-poltsa eratzeko hautaketa-prozesua arautuko da.

### Funtzioak

Esleituta dituzten ikastetxeetako azpiegiturak kudeatzea, berrikustea eta kontrolatzea. Esleituta dituzten eraikin eta/edo instalazioen matxurak konpontzea eta kudeatzea. Esleituta dituzten eraikin eta/edo instalazioen higiene eta osasungarritasun egokia ziurtatzea. Esleituta dituzten eraikinen eta/edo instalazioen funtzionamendua ziurtatzea. Pertsonen arreta eta informazioa ematea. Oro har, lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duen edozein lan.

### Bigarrena. — *Hautagaien baldintzak*

Hautaketa-prozesuan parte hartu ahal izateko, beharrezkoa izango da:

- Europar Batasuneko estatu kideren bateko herritarra izatea, edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsita nazioarteko itunen arabera, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen batekoa izatea. Era berean, Europar Batasuneko estatu kideetako nazionalitatea duten ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta zuzenbidezko banaketarik ez badago, eta, bezaz, haien ondorengoek eta ezkontidearen ondorengoek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta zuzenbidezko banaketarik ez badago, 21 urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak badira.
- 16 urte beteta izatea eta erretiroa hartzeko adinera ez iristea.
- Eskola-ziurtagiriaren titulua edo baliokidea izatea. Baliokidetasuna izangaiak aurkeztu beharko du, administrazio eskudunak horretarako emandako ziurtagiriaren bidez. Atzerrian lortutako titulazioak dituzten izangaiak egiaztatu beharko dute dagokien baliozkotzea edo, hala badagokio, tituluaren homologazioa egiaztatzen duen kredentziala dutela.
- Haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legearen arabera, adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanpostuetan sartzeko, nahitaezkoa da sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren aurkako delituen batentatik eta gizakien salerosketagatik epai irmo bidez kondenatua ez izatea.
- Lana normaltasunez egitea eragozten duen gaixotasunik edo akats fisikorik ez izatea, Elbarriak gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legea aplikatzeari kalterik egin gabe.
- Diziplina-espediente baten bidez Estatuko, Autonomia Erkidegoko, Tokiko edo Erakunde Administrazioiko zerbitzutik bereizita ez egotea, eta eginkizun publikoak betetzeko ezgaituta ez egotea.
- Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean sartuta ez egotea.
- Euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna.
- Administrazio-agiriak emateko tasa arautzen duen 10. ordenantza fiskalean araututako azterketa-eskubideengatik tasa ordaindu izana (taulako 6. artikulua, 17. kontzeptua) (Basauriko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura dauden pertsonak hautatzeko prozesuetan azterketa-eskubideengatik tasak). AP taldearentzako tasaren zenbatekoa 5,20 eurokoa da.



Langabezia-egoeran daudenek, dagokion “lan-bizitzaren ziurtagiria” aurkeztuz egiaztatzen badute, tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira.

Oinarri honetan ezarritako baldintzak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari buruzkoak izango dira, eta lanpostuaz jabetzen den egunean mantendu beharko dira.

Hautaketa-prozesuan onartua izateko eta parte hartzeko, nahikoa izango da izangaiek eskaturiko baldintzak betetzen dituztela adieraztea beren eskabidean, hori egiaztatzeko prozeduraren faseari kalterik egin gabe.

#### **Hirugarrena. — Eskabideak**

Onartuak izateko eta, hala badagokio, hautaketa-probetan parte hartzeko, izangaiek dagokien hautespen-prozesuan parte hartzeko eskaera-orria aurkeztu beharko dute eta bertan adierazi beharko dute bigarren oinarrian eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela, beti ere, eskaria aurkezteko jarritako epea amaitzen den egunean.

Horretarako, izangaiek honako hauek jaso beharko dituzte eskabideetan, dagozkien ataletan:

- Datu pertsonalak.
- Oposizio faseko hautaprobak zein hizkuntza ofizialean egin nahi dituzten: euskaraz ala gaztelaniaz.
- Deialdian parte hartu ahal izateko baldintza gisa eskatzen diren eta aurkezten diren ikasketa-titulu ofizialak.
- Egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna.
- Era berean, eskabidea aurkezteko unean langabezia daudela egiaztatu beharko dute, azterketa-eskubideagatiko tasatik salbuesteko.

Eskaera aurkezteak berekin dakar baimena ematea datu pertsonalak (izena, abizenak eta telefonoa) eskatzen dituzten beste administrazio publiko batzuei lagatzeko, lanposturen bat premiaz betetzeko.

Eskaera horiek korporazioko lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta Erregistro Oroko-rean aurkeztuko dira, 10 egun balioduneko epean, deialdiaren iragarkia BAO-n agertzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Eskaera Internet bidez ere egin ahal izango da, Basauriko Udalaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen eskaera beteta <https://sede.basauri.eus>.

Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. eta 66. artikuluetan ezarritako moduan aurkeztu ahal izango dira.

Izangaiek beharreko ziurtagiriaren bidez egiaztatzen badute % 33ko desgaitasuna edo handiagoa dutela, azterketak egiteko denbora eta bitartekoak egokitzeko eskatu ahal izango dute egokitzapen hori beharrezkoa bada. Horretarako, minusbaliotasun horren ehuneko eta ezaugarriak adierazi beharko dituzte.

Beren eskaeretan adierazi dituzten datuei loturik geratuko dira izangaiek, eta arrazoiak azaltzen dituen idazki baten bidez bakarrik eskatu ahal izango dute datu horiek aldatzeko, eskaerak aurkezteko aurretik ezarritako epearen barruan. Epe hori igarota-koan, ez da onartuko horrelako eskaerarik.

Basauriko Udalaren web orrian, hautaketa-prozesuari eta prozesutik etorritako egin-tza guztiei buruzko informazioa emango da, jakinarazpen eta komunikazio ofizialak egiteko.

#### **Laugarrena. — Izangaiek onartzea**

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, korporazioko lehendakariak ebazpena emango du, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartutzat emanez. Zerrenda Udaletxeko iragarki-taulan eta udalaren web-orrian argitaratuko da, eta bost egun balioduneko epea emango da baztertze horren aurka erreklamatzeko eta baztertze hori eragin duten akatsak edo dokumentuak zuzentzeko.



Eskaera epez kanpo aurkeztea ezin izango da zuzendu. Baldintzak egiaztatzeko dokumentazioa ere ezin izango da aurkeztu eskaerak aurkezteko epetik kanpo.

Erreklamazioetarako epe hori igarotakoan, korporazioko lehendakariak beste ebazpen bat emango du, onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda onartzeko.

Ebazpen horretan adieraziko dira, halaber, Epaimahai Kalifikatzailearen osaera eta oposizio-azterketa zein egunetan egingo den.

Aurrekoa gorabehera, ebazpen horren ondorengo edozein unetan, baita probak egiten diren bitartean ere, epaimahaiak ikusten badu edozein izangairen eskaeran edo erantsitako dokumentazioan zehaztasunik eza edo faltsutasuna dagoela, eta hori baztertzeko arrazoia bada, hori konponezintzat joko da beti, eta Epaimahaiak Alkatetzari proposatuko dio baztertzea ebatz dezan.

### **Bostgarrena. — Epaimahai Kalifikatzailea**

1. Epaimahaiaren osaerak bat egingo du Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateraginaren 60. Artikuluarekin (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi zuen aipatutako testu bategina). Epaimahaiburuak, idazkariak eta hiru epaimahaikidek osatuko dute. Bere osaketa osoa izangai guztiei jakinaraziko zaie onartuen ebazpenean.

2. Nolanahi ere, Epaimahai Kalifikatzaileak bere lanetan aholkulariak sartzea erabaki ahal izango du. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetara mugatuko dira, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 31.3 artikulua xedaturikoaren arabera.

3. Epaimahai Kalifikatzaileko kideek ez dute parte hartuko, eta korporazioko lehendakariak jakinaraziko diote, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitako egoeraren bat gertatzen denean, eta izangaiek errefusatu ahal izango dituzte, aipatutako lege horren 24. artikulua xedaturikoaren arabera, aurreko artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen denean.

4. Epaimahai Kalifikatzaileko kide guztiek hitza eta botoa izango dituzte. Epaimahai Kalifikatzailearen erabakiak bertaratutako botoen gehiengoz hartuko dira.

5. Epaimahai Kalifikatzailea, gainera, dagozkion ordezkoei osatuko dute, eta horiek, titularrekin batera, epaimahaiko idazkari eta lehendakarietarako eta beharreko boeletarako izendatu beharko dira.

6. Epaimahai Kalifikatzailea ezin izango da eratu, ezta jardun ere, kideen erdiak baino gehiago, titullarrak zein ordezkoak, bertan ez badaude.

7. Prozeduraren edozein unetan Epaimahai Kalifikatzaileak jakiten badu izangairen batek ez dituela betetzen deialdian eskatzen diren baldintzak, deialditik kanpo utziko da, interesdunari entzun ondoren, eta egun berean jakinaraziko zaio lehiaketa deitu duen agintariari. Antzeman daitezkeen egitezko akatsak edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesdunak eskatuta.

### **Seigarrena. — Hautapen-Prozesua**

Izengaien hautaketa txanda irekian eta oposizio bidez egingo da.

#### *Oposizio-Fasea*

##### **8.1. Lehen ariketa (nahitaeskoa eta baztertzalea)**

Bi atal izango ditu, eta bietako bakoitza gainditu beharko da:

Epaimahaiak ezarritako gehieneko denboran, oinarri hauetako gai-zerrendaren zati orokorreko eta espezifikoko (I eranskina) edukiei buruzko erantzun anitzeko galdera teoriko edo teoriko-praktikoko galderari erantzutea. Galdera bakoitzeko 4 erantzun egongo dira, eta txarto erantzundako galderak puntuak kenduko dituzte.

Puntuazio zuzena honelaxe kalkulatu da: ondo erantzundakoak ken txarto erantzundakoen herena ( $P = O - T/3$ ). Erantzun gabe utzitakoak ez dira akats gisa zenbatuko.



Ariketaren azken puntuazioa 0-10 bitartekoa izango da, eta bi dezimal onartuko dira. 5,00 puntuko gutxienekoa lortzen ez dutenak prozeduratik kanpo geratuko dira.

#### 8.2. Bigarren ariketa (nahitaezkoa eta baztertzaila)

Epaimahai Kalifikatzaileak zehazten dituen kasu praktikoak ebatziko dira, lanpostuaren berezko eginkizunekin zerikusia dutenak.

Bigarren ariketa hori gehienez hogeita hamar (20,00) punturekin kalifikatuko da, eta gutxienez hamar (10,00) puntu lortu beharko dira ariketa gainditzeko.

Izangaiei dei bakarria egingo zaie, Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritzaren ebazpenaren bidez ezarritako ordenaren arabera. Ebazpen horren bidez argitaratzen da Estatuko Administrazioaren zerbitzuan Langileak Sartzeko Erregelamendu Orokorrean aipatzen den zozketaren emaitza, proba egiten den urteari dagokiona.

Proba hasi baino lehen, Epaimahaiburuak edo hark eskuordetu duen kideak ahoz jakinaraziko die izangaiei probaren fitxa formalizatuen edukia. Fitxa horietan jasoko dira egin beharreko lanak, eskura dauden materialak, gauzatzeko denborak eta lanen kalitate-estandarrik.

Azterketa horretan, honako hauek ebaluatuko dira: kasu praktikoak ebazteko gaitasuna, materiala, makineria eta lan-teknikak behar bezala aplikatzea, lanak egitean garbitasuna eta segurtasuna izatea, bai eta ezagutza teoriko-praktikoak Eraikin Publikoen Mantentze-lanen arduradun baten berezko funtzioei modu arrazoituan aplikatzea ere. Udalaren kontura izango dira proba egiteko behar diren baliabide teknikoak, materialak eta tresnak.

#### **Zazpigarrena. — Prozesuaren emaitza**

Hautaketa-prozesuaren azken kalifikazioa ariketetan lortutako puntuazio guztien batura izango da (betiere gainditu badira). Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritako irizpideen arabera ebatziko dira puntuazio-berdinketak. Berdinketak jarraitzen badu, Basauriko Udaleko karrerako funtzionarioentzako hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorren 9. oinarrian ezarritakoaren arabera ebatziko da. Oinarri horiek uztailaren 1eko 2311/2022 Alkatetza Dekretuaren bidez onartu ziren eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren (141 zenbakia, 2022ko uztailaren 26koa).

#### **Zortzigarrena. — Aldi baterako Lan-Poltsak**

Hautaketa-prozesuaren emaitzekin lan-poltsa bat eratuko da, oposizio-faseko ariketak gainditu dituzten izangaiekin. Hasieran, 3 urteko iraupena izango du. Lan-poltsa hori talde, eskala eta azpieskala horretako langileen aldi baterako beharrak betetzeko erabiliko da, eta Basauriko Udalaren lan-poltsak arautzen dituen araudian ezarritakoaren arabera kudeatuko da, hurrengo paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera eratutako lan-poltsa agortutzen bada, lehenetsuna izango dute, beste lan-poltsa batzuen aurrean, nahitaezkoak eta baztertzailak diren probarik gehien gainditu dituzten izangaiei zerrendek,, gainditutako proba horietan guztira lortutako puntuen hurrenkeran.

#### **Bederatzigarrena. — Gainditutakoen zerrenda, dokumentuen aurkezpena**

Hautaketa-prozesua amaituta, epaimahaiak gainditu dutenen zerrenda argitaratuko du, puntuazioaren arabera ordenatua, eta zerrenda hori korporazioko lehendakariari bidaliko dio, lan-poltsa eratzeko berariazko proposamenarekin. Proposamena loteslea izango da. Hala ere, zerrenda hori berrikusi ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen indarreko Legean aurreikusitakoaren arabera.

Lan-poltsan sartzeko proposatutako oposizilogileek hautaketa-prozesuan parte hartzeko deialdiaren oinarrietan eskatzen diren baldintzak egiaztatzen dituzten agiriak aur-



keztuko dituzte Korporazioko Erregistroan, 10 egun balioduneko epean, gainditu dutenen zerrenda argitaratzen denetik aurrera.

1. Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia
2. Deialdian eskatzen diren berariazko baldintzen egiaztagiriak (unibertsitate-titularen fotokopia konpultsatua, hizkuntza-eskakizunaren egiaztapena).
3. Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema Aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legearen arabera, adingabeekin ohiko harremana duten lanpostuetan sartzeko, nahitaezkoa da epai irmo bidez kondenatua ez egotea sexu-askatasunaren eta -uki-gabetasunaren aurkako delituren batengatik edo gizakien salerosketagatik.

Baldintza hori egiaztatzeko, Basauriko Udalari baimena eman beharko zaio ziurtagiri hori eskatzeko Sexu Delitugileen Erregistro Zentralari, edo, bestela, abenduaren 11ko 1110/2015 Errege Dekretuan araututako Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkeztu beharko da.

Adierazitako epearen barruan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, lan-poltsan sartzeko proposatutako oposizioegileek ez badute beren dokumentazioa aurkezten edo eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte, ezin izango dira lan-poltsan sartu eta beren jarduera guztiak baliogabetuta geratuko dira, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatuz eskabidean faltsutasuna egoteagatik izan dezaketen erantzukizunari kalterik egin gabe.

#### **Hamargarrena. — Izendapena**

Dokumentazioa aurkezteko epea igaro ondoren, izangaiak bitarteko funtzionario izendatuko dira, Basauriko Udalak eraikin publikoetako mantentze-lanen arduradun lanpostuei dagokienez dituen beharren arabera.

Izendapenaren berri pertsonalki emango zaio izendatutako pertsonari.

Interesdunak karguari uko egiten diola ulertuko da aipatutako epeetan edo baldintzetan arrazoi justifikaturik gabe lanpostuaz jabetzen ez bada. Horrelakoetan, hautaketa-prozesuaren emaitzaren puntuazio-hurrenkerari jarraituz ordezkaturiko da, betiere aurreko atalean aipatutako agiriak aurkeztu ondoren.

#### **Hamaikagarrena. — Lan-harremana etetea, baliogabetzea eta amaitzea**

Bitarteko funtzionarioak kargua utziko du urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 63. artikuluan aurreikusitako arrazoiengatik ez ezik, hura izendatzeko arrazoiak amaitu denean ere.

Izendapena honako arrazoi hauengatik baliogabetuko da:

- Karrerako funtzionarioek lanpostua modu arautuan betetzean, legez ezarritako edozein prozeduraren bidez.
- Esleitutako lanpostuak kentzea edo amortizatzea eragiten duten antolaketa-arrazoiengatik.
- Izendapenean berariaz jasotako baimendutako epea amaitzeagatik.
- Enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legeak aldatutako urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako EPOEren testu bateginaren 10.4 artikulua-  
ren kasuan, izendapena egin zenetik 3 urteko epea igaro ondoren.

#### **Hamabigarrena. — Gorabeherak**

Epaimahaiakoinarri hauetan zehaztu gabe dagoen guztiari buruz sor daitezkeen zalantzak ebatzi, eta hautapen-przoesua behar bezala garatzeko beharrezko erabakiak har ditzake.

Interesdunek deialdiaren, oinarrien eta horietatik eta Epaimahai Kalifikatzailearen jardueratik erator daitezkeen administrazio-egintza guztien kontra egin dezketen, Araubide



Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritako kasuetan eta moduan.

Oinarrietan aurreikusia ez dagoen guztian, Estatuko Administrazioaren zerbitzura dauden langileak sartzeko Erregelamendu Orokorra (364/1995 Errege Dekretuaren bidez onartua), Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legea eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aplikatuko dira.



## I. ERANSKINA GAI-ZERREDA

### ZATI OROKORRA

1. gaia. 1978ko Espainiako Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubideak eta betebeharrak. (EK: Atariko titulua eta I. titulua).

2. gaia. Udal-antolaketa. (Espainiako Konstituzioaren 140. artikulua). Udal-antolaketa (19. eta 20. artikulua). 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena).

3. gaia. Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa. Legearen xedea. Aplikazio-eremua. Emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa. Herri-administrazioen jarduera-irizpideak (1., 2., 3. eta 51. artikulua).

### ZATI ESPEZIFIKOA

4. gaia. Kultura orokor aritmetikoa: oinarrizko nozioak. Batuketak, kenketak, biderketak eta zatiketak. Ortografia. Gramatika. Kultura orokorra.

5. gaia. Pintura: Ezagutza orokorrak. Tresnak eta produktuak maneiatzeko eta mantentzeko.

6. gaia. Igeltserotza: Eskuzko tresnak eta erremintak: erabilera, garbiketa, zaintza eta mantentzea.

7. gaia. Iturgintza: Kontzeptu orokorrak. Iturgintzako lan nagusiak. Erreminten, tresnen eta materialen tipologia, maneiua eta mantentze-lanak ezagutzea. Iturgintzako instalazioen mantentze-lanak (komunak, txorrotak, zisternak, sifoiak). Berokuntza-instalazioen mantentze-lanak (zirkuituak, airea betetzea eta purgatzea). Erradiadoreak. Galdara-gelak, elementu garrantzitsuak).

8. gaia. Elektrizitatea: Kontzeptu orokorrak. Sinboloak interpretatzea. Elektrikariaren oinarrizko tresnak (bihurkinak, guraizeak, aliketak eta beste erreminta batzuk) ezagutzea, maneiatzeko eta mantentzeko. Eraikinetako banaketa-koadroak (potentzia kontrolatzeko etengailua, magneto termikoak, diferentzialak). Soinu-zirkuituak (sakagailuak, txirrinak). Oinarrizko argiztapen-zirkuituak (etengailuak, kommutadoreak, entxufe-oinarriak lur-hartunearekin eta gabe, lanparak). Argiztapen fluoreszenteko zirkuituak (zebadoreak, errektantziak, lanpara fluoreszenteak). Zirkuitu bereziak (alarmak, larrialdietako argiak). Kanpoko argiteria.

9. gaia. Arotzeria: Kontzeptu orokorrak. Arotzeriako oinarrizko zereginak. Arotzeriako oinarrizko tresnak eta erremintak (mailuak, zerrak, trintxak, zulagailu elektrikoa, lixak, kolak eta beste erreminta eta osagarri batzuk). Mantentze-lan eta konponketa ohikoenak: (ateak eta leihoak doitzea). Sarrailak eta bonbinak. Pertsianak: motak, mantentze-lanak eta konponketak.

10. gaia. Egiturak muntatzea, oinarrizko mekanika orokorra. Lanabesak, erremintak eta lotutako lan errazak. Eraikuntzako makineria txikia (sorgailuak, hormigoi-makinak, konpresoreak, erreminta elektrikoa) maneiatzeko eta oinarrizko mantentze-lanak egitea. Mekanikako oinarrizko tresnak ezagutzea, maneiatzeko eta mantentzeko (mailuak, bihurkinak, hainbat giltza mota, zerrak, zulagailu eramangarria eta beste tresna batzuk). Sarrailagintzako oinarrizko lanak (metalezko atek eta leihoak, sarrailak eta bonbinak doitzea, metalezko altzarrien mantentze-lanak).

11. gaia. Laneko Segurtasun eta Higieneari buruzko Oinarrizko Arauak. Makinekin lan egitean kontuan hartu beharreko neurriak, lanean, kalean eta laneko seinalizazioak. Suteei eta larrialdiei aurre egiteko prebentzio-neurriak eta jarraibideak. Kargak lekuz aldatzea. Eraikin publikoetako segurtasuna. Lehen laguntzak.





12. gaia. Ekipamendu eta zuzkidura publikoen kokapena Basauriko udalerrian.

13. gaia. Laguntza-lan osagarriak. Bulegoko makina osagarrien maneia eta oinarrizko mantentze-lanak: grapagailuak, fotokopiagailuak, inprimagailuak, eskanerrak, plastikagailuak, multikopistak, koadernagailuak, suntsitzailleak, linea anitzeko telefonoak, proiektoreak, soinu-sistemak, megafonia-sistema.